

Kapitalismoaren eragina XIX. mendeko arrantzan Bizkaian (ca. 1840etik 1876 arte)

(The influence of capitalism in 19th century fishing in Biskaia [c. 1840-1876])

Sesmero Cutanda, Enriqueta

Eusko Ikaskuntza. María Díaz de Haro, 11-1. 48013 Bilbo
enrikesmer@euskalnet.net

BIBLID [1137-439X (2003), 25; 493-500]

Jaso: 06.03.03
Onartu: 29.10.03

XIX. mendean, kapitalismoak Bizkaiko arrantza baldintzatu zuen. Mozkin handien bila, lan metodoak eta ballabideak gutxi aldatu ziren, prezioen beherapena bultzatuz; beraz, arrantzaleekiko zapalketa areagotuz. Elkarlehia sakondu zen, industria pribatuak bultzatu ziren eta sektorearen jendea batzen zituzten, kofradiak erasotu, interes pribatuari jartzen zizkioten mugak apurtzeko. Prozesu horien atalrik nabarmenenak azalduko ditugu, ekonomi gizarte eta kultura aldetik iturburu eskasen posibilitateen arabera.

Giltza-Hitzak: Arrantza. Arrantzaleak. Erakundeak. Kontserbagintza. Kapitalismoa. Liberalismo ekonomikoa. Historia.

La pesca de bajura y la llamada pesca artesanal quieren-deben responder a dos situaciones diferentes: por una parte, la explotación eficaz del mar, ubicada como está en una economía de mercado que busca una explotación rentable, y por otra, la actividad económica sostenible, hoy en día llamada desarrollo sostenible, utilizando para ello las que en su día fueron técnicas punteras de pesca para pescar más y mejor. Me pregunto si no es tiempo ya de abordar la globalización económica y el frágil equilibrio marino y de poner en vigencia nuevas concepciones y modelos.

Palabras Clave: Pesca. Pescadores. Instituciones. Actividad conservera. Capitalismo. Liberalismo económico. Historia.

Durant le XIX^{ème} siècle, le capitalisme conditionna la pêche en Bizkaia. Dans la recherche de gros bénéfices, les méthodes et les moyens de travail ne changèrent guère et l'on obtint une baisse des prix qui accentua l'exploitation des pêcheurs. La concurrence entre eux augmenta, des industries privées apparurent et l'on combattit les confréries qui unissaient les gens du secteur afin de rompre les limites à l'intérêt privé qu'elles imposaient. Nous allons exposer les chapitres les plus importants de ces processus à partir de leurs aspects économique, social et culturel, conformément aux possibilités permises par leurs rares sources.

Mots Clés: Pêche. Pêcheurs. Institutions. Activité de l'industrie de la conserve. Capitalisme. Libéralisme économique. Histoire.

XIXgn mendean zehar –erdiko hamarkadetan prezeki eta gehiago–, kapitalismoak Bizkaiko artisau arrantza baldintzatu egin zuen. Arrain freskoaren eskaera eta, batez ere, kontserbena gero eta gehiago luzatu ziren, biztanleriaren hazkunderari eta erosketa ahalmen hobesteari esker. Ekoizpen bideen jabeak zirenek lan metodoak eta baliabideak ahalik eta gutxiago aldatu zituzten, mozkin handien bila; arrazoi berberetatik, kontserbalariak arrantzaleak prezioak beheratzen eta atseden biologikoa erasotzen ahalegindu ziren. Bi hitzetan, eraginik sakonenak ondokoak ziren: elkarlehia sakontzea, industria pribatuak bultzatzea eta sektorearen jendea batzen zituzten erakundeak (kofradiak) erasotzea, interes pribatuari jartzen zizkieten mugak apurtzeko asmoz. Saio antzera egingo dugun laburpen honetan prozesu horien atalik nabarmenenak azalduko ditugu. Horretarako, aurrez-aurretik zera hartu behar dugu kontutan: jokaera ekonomiko horren aldekoak liberalek ez ezik, karlista ohi burges askok onartu zutela, kasu honetan tartea ez zuela ideologia abstraktoak jartzen, klase maila baino. Testu honetan “liberalak” hitza zentzu politiko zehatzaz erabiltzen dugu; baina jatorriz liberalak ziren ideia asko edozein motako boteredunek bultzatu zuten.

1. ARRAINA: BEHARREZKOTASUNAREN PREZIOA

Arraina jatea beharrezkotasun ideologikoa zen (bromatologia oraindik ez zen bilakatu), derrigorrezkoa zen erlijio katolikoak urtero hirurogeiren bat egunetan haratuztea inposatzen zuelako. Eskaera segurua izan arren, arrantzaleenganaino oso mozkin gutxi heltzen zen, ondoko arrazoiengatik:

– Soldata bezala, diruaz gain arrantzaleek lortutako *arrain freskoaren* parte bat eskuratzen zuten, haien kabuz kontsumitu eta, batez ere, sal zeza-ten. Baina galkorra izanez eta hozketa sistemarik ez zegoenez, balio erantsi gutxizkoa zen, salmenta bidesare eta garraioen egoera traketsak mugatzen zuelako. Merkaturaketa ia osoa emazteek oinez egiten zuten, noiztenka mandoz karga bakarrik eramanez; hau da, kalitatea mantentzeko egunero 15-20 km baino gehiago ezin zuten egin, ibiltari bizkor baten ohizko joan-etorria 30-40 kilometrokoa zelako. Horregatik kontserbagintza horrenbeste garrantzia zuen, tokiko dirudunen kontsumoan eta, askoz gehiago, Estatuako barne lurraldeetan, batez ere Gaztelan, Errioxan eta Aragonen.

Bizkaiaraino trenbidea nahiko berandu heldu zen, 1863an, baina Bilboraino soilik, ez arrantza portu bateraino (uri hori ez da inoiz arrantzaleena izan); gainera, burdinbidearen ibilbidea beste salgaien inporta-esportaketa egiteko pentsatu zen, burdina, ehunak, laboreak eta Ameriketakoak prezeki. Aipaturiko Estatu barruko eskaeretatik, makalau gazituak eta lehortuak –atzerritik ekarrita– eta eskabetxeek mozkin ugariak uzten zituzten, lehenak inportazio merkatariei (batez ere, bilbotarrak) eta bigarrenak taillerren jabeei. Azken hauenak XIXgn mendeko industrializazioak areagotu egin zituen, gero azalduko dugun langileen egoera latzari esker.

– Arrain batzuren eskaera, holan hegaluze eta legatzarena, zabala izan arren, urtaroko ekoizpenak *prezioak* beheratzen zituen. Adibidez, 1845ean

hauena, sasoian, 4 maravedi/liberazkoa zen; 1842an bixiguak 14 mv/lb, hegaluzeak 6, legatzak 12, eta merkeagatik elikadura herrikoa zen sardinak 4 mvs/hamabikoaz gehienez balio zuten¹. Erreferentzia, aroko ohizko egunsariak: nekazari jormalariarena (merkeena), 5 erreal; zurgin espezializatuarena, 8-12 erreal; errealak 34 maravedi zeukala. Arrantzale jatorreen lan kulturak sasoizko atsedeen biologikoa errespetatzea eskatzen zuen. Antzinean, garesti samarragoak mantentzeko kofradiek (ik. behean) lonjetako handizkako salmenta subastak kontrolatzen zituzten. XIXgñean erakunde horien ahuldurak, gertatu zeneko herrietan, eta kontserba industria enpresariak egindako erosketa zuzenak, lonjetatik pasatu gabe merkataritza askapen aldeko legeei esker, beharpenak eragin zituzten, ondoriozko elkarlehiagatik.

– *Atzerapen teknikoa* nabarmena zen. Arrantzale askok ez zuen dirurik ekoizpen bideak lortzeko, eta eza hau ahoz-ahoz eta praktikaz ikasitako espezializazio bikainak betetzen zuen. Ia tresna pertsonalik erabiltzen ez zenez eta inoiz behar zirenak oso merkeak izanez, eta umeentzat zeregin produktiboak zeudenez gero, lanbide hau ikastea sendiari ia ezer ez zitzaion kostatzen; aldiz, goizdanik aho pasiboak kentzen zitzaizkion. Beraz, alternatiba ona zitzaien. Baina jakintza hori beste edozein arlotarako balio gabea zenez, eta arrantzaleen familietan jaiotzea handia zenez (beste faktoreen artean), langile ugari txiroak zegoen, eta honek mozkinak berreinbertitzeko beharrezkotakoa txikitzen zuen. Ondorioz, kapitalismo industrialak sektorean sartzen hasi zenean, itsasgizonen zapalketa txarragotu zen.

– Horregatik, *arrantzaleen egunsaria* oso behea zen: 1842 inguruan, 4 erreal, gehienez². Lekeitioko izandun liberal ospetsu batek dinoskun legez, kapitalistek egoera bultzatzen zuten, esan dugunagatik:

“El pescador de Vizcaya és sencillo, medroso, ignorante, ebrio por el oficio y por costumbre, desarreglado en su casa, y pobrisimo sin aspirar sino á tener vino, pero nunca ladron ni mendigo. [...]”.

“Los puertos de mar, refugio de pobres y holgazanes, ignorantes por su misma manera de vivir, en particular de los pescadores [...] donde hay y ha de haber tanto invalido, tanta viuda pobre, y [...] el fanatismo y supersticion tienen el mayor influjo [...]. Pues estos pueblos de Vizcaya hay quien los quisiera conservar tan necesitados, tan embrutecidos, diciendo que assi conviene”³.

1. MADUZ, Pascual: *Diccionario Geográfico-Histórico-Estadístico de España y sus posesiones de Ultramar*, Valladolid: Bizkaiko Batzar Nagusiak-Ámbito Ediciones, 1990 (faksimila; jatorrizkoa: 1845-50), “Bermeo” hitza; LUNA, Julián: *Memoria que contiene una Estadística sucinta de Vizcaya, por don =, gefe político é Intendente de la misma Provincia*, Bilbao: Imprenta y Litografía de Nicolás Delmas, 1842 (orrialdeak ezarri gabe). Azken honen datuak kontuz hartu egin behar dira, Bizkaiko zerga-oinarri orokorra kalkulatzeko estrapolatzen baitzituen, ohizko sistema Estatuarenari egokitzeko asmoz.

2. LUNA, *op. cit.*

3. OXANGOITI, Cayetano Joaquín de; SESMERO CUTANDA, Enriqueta; ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ, Javier (ed. lit.): *Consejos a un Hazendado Vizcaino. Memorias para el buen gobierno del caserío bascongado. 1823-1838*, Bilbao: Librería Anticuaria Astarloa, 2002, 35 eta 12 orr. Oxangoiti 1829ean Lekeitioko alkatea zen.

Horrela, 1862an Foru Aldundiak arrantzaleen aurrezki kutxa ezartzeko eta txalupetan lan egoera hobesteko eman zituen aholkuei entzungorrena egin zieten bai Bermeoko udalak –1873ean karlista ospetsua izango zen alkatea barne–, baita tokiko kofradiak, erakunde hauek berdinzaleak ez zirelako. Horietaz oraintxe arduratuko gara.

2. KOFRADIAK: ELKARTASUN ERASOTUA

Antzinako Errejimenean bezala, kofradiak oraindik indartsuak ziren. Izenez itsasgizon guztienak (erderaz, *mareanteenak*) izan arren, izatez batez ere arrantzaleenak ziren, tostartekoak eta untzijabeak batzartuz. Haien esku-menik nagusienak ondokoak ziren:

– *Elkarlehia mugatzea*, batez ere produktuaren prezioak eta arrantza orduak eta egunak finkatuz, kasu honetan istripuak ekiditzeko; eta kanpotik ekarritako arrainei zerga bereziak inposatzea. Helburua, erkidegoaren arteko ezberdintasunik gorrienak arintzea, giza taldearen oreka mantentzeko. Merkatari eta kontserbagileek, liberalismoaren bidez, zera eskatzen zuten: “de parte de las autoridades [...] el arreglo conveniente de [las] cofradías y de sus ordenanzas á fin de quitar al mar quanta mas pesca para la desestancación y salida de esta [...]”⁴, nahiz eta oreka ekologikoa erasotu, lan orduak nekagarriki luzatu eta egun arriskugarrietan itsasoratu. Edozein salmenta orduak eta lekuak jartzea komeni zitzairen, baita arrantzaleekin libreki kontratatzea, bakarka negoziatuz arrainaren eta lanaren prezioak beharatuko liratelako. Kanpoko arrainaren aurkako arauak desagertarazi nahi zituzten ere, jakina, sasoiari ahalik eta ekoizkin gehiago prestatzeko. Bermeoko kontserbagileek egindako inportazio baimengabeak, 1851ean, beste komunikazio batean aztertu genuen altxamendu latza eragin zuen⁵.

– Lan *gatazkak konpontzea*, bai sektorearen kideen artekoak, baita kanpoko erakunde edota pertsonekin. Helburua, gizarte bakea gordegitea, lana ez eragozteko eta, batez ere, gizarte sailkapenaren ezberdintasuna erasotua izan ez zedin. Teorian, burgesiari azken puntu hau interesatzen zion; baina komenio sistema horrek orekatzea eskatzen zuen, Antzineko Erregimenaren estamenduzko gizartean sortu zelako. Liberalek eskaturiko lege aurreko berdintasunak desagertarazten zuen. Gainera, hauteskundeak zentsitarioak izanez (hautagaia eta hauteslea izateko gutxienezko aberastasun pertsonala beharrezkoa zela, alegia), langilegoak, haren kalterako, legegintzan ez zuen parte hartuko, esandako berdintasun teorikoa klase nahiek mugatzen zutelako.

4. OXANGOITI, *op. cit.*, 12. Beste neurrien artean, kaien konponketa publikoak eta, orokorki, arrantzaleen lan segurtasunarakoak eta haientzako kontsumo-zerga beherapenak proposatzen ditu.

5. SESMERO CUTANDA, E.: “Aproximación a las relaciones intracomunitarias de los pescadores bermeanos a mediados del siglo XIX”, *Zainak*, 15 (1997), 219-232; hemen aipatzen ditugun arazo batzu, han sakonkiago tratatzen dira.

– Kaiak eta beste *azpiegitura lanetarako dirua* ematea, maileguz ala eiztultzeko inbertsio bezala. Haien ondarearen errentetatik eta udalekin negozioatutako zergetatik ateratzen zuten. Eskumen hau ideologia guztietako udalentzat erabilgarria zen, bilketa gastuak aurrezten zielako.

– *Elkarrekiko laguntza* eskeintzea: dirua, sendagaiak, etab., eritasunean edo alarguntsei, eta hil ondoren, otoitzak; urtero, kide guztien aldeko mezak. Pentsamendu herritarraren aldetik, elkartasun hau materiala bezain balioetsua zen, eta agian garrantzitsuagoa. Horregatik, Elantxobekoak eliza berriaren eraikuntzan parte hartu zuen, eta Lehen Karlistada amaitu ondoren txalupak galdu zituztenei maileguak eskaini zizkien. Gizarte segurantzarik ez zegoenez, eta pentsaera liberalaren eraginagatik udal ongiegitea murriztu zenez, Estatuko eta Jaurerriko agintariek laguntza hura onartzen zuten (eta kofradiek zergati ekonomizko erasoak ekiditzeko erabili zuten). Jende xehearentzat, diru uzte horien “biguntasuna”, era kapitalista berriak ziren mailegu pertsonalen eta epe laburreko hipotekadunen aurreko elkarlehian oso alternatiba komenigarria zen, plusbalio gutxiago kentzen ziolako; horrexegatik kofradien kanpoko dirudunek oztopatu nahi zuten.

– Beste *erakundeekin kudeatzea*, nortasun juridiko onartuta eta tokiko lankide guztien indarra edukitzeari esker. Foru Aldundia, udala eta Eliza ohizko solaskideak zituzten. Kontserbagintza enpresariak banan-banako lan harremanak nahiago zituzten, haien baldintzak errezago inposatzeko.

– Azken horren ondorioz, ekintza publikoetan kideen *ordezkaritza erakunde* bezala agertzea eta aritzea; adibidez, tokiko jaietan, edo Isabel II erregina Bizkaiko portuetara etortzen zenean. Elite burges liberalek partaidetza hori gero eta gehiago mugatzen saiatu zuten, batez ere, gero aipatuko ditugun arrazoi kulturalengatik.

Gainera, azterturiko garaian arlo hauetan aritu ziren ere:

– XVIIIgnaren amaieratik aurrera, *kontserba-faktoriak eragitea*. Helburua ez zen soilik aipatutako inbertsiotarako dirua ateratzea edo arrantzaleen etxe ekonomiak hobestea haien emazteak eta alabak enplegatuz, lanaren egoera egokia –hain astunak ziren aroko parametroen barruan– bermatzea baino. Enpresari pribatuen lehiaketa gero eta gogorragoa zen, kasu batzutan kofradien instalazioak itxiarazi arte, mundakarra adibidez. Udal batzuek industria pribatu neurri ezberdinetan bultzatu zuten. Laguntzaile bikainen artean, goi merkatari esportatzaileek kontrolatutako Bilbokoa zen, 1871ean kontserbagintzarako arrain fresko guztia udal zergetatik salbuetsi baitzuen.

Ezin da kofradien eta besteen tokietako langileen situazioa zehazki-mehazki konparatzea, orain arte agertutako datuak orokorrak zirelako. Bermioko fabriken 1871eko egoeraren arabera, edozein industrian bezala jarri ziren: jende gazte indartsua baina jada ikasia (18-40 urtekoa nahiago zen); andrazkoek eta umeek baliatzea salairuak behertzeko, batzutan, 1:10 proportzioan, emazteen espezializazioa kontutan hartu gabe; inolako segu-

rantzaren eza, etab., aldiko edozein industria bezala. Hala ere, arrantzan lortzen zenarekin konparatuz (baxurako artisauek, 5 erreal egunean), soldatak –gizonezkoena, 15 erreal– merezi zuten, eta langilegoak onartu egin zuten. Industrializazioaren arriskua kanpoko arrantzaleen lehiaketa mugagabea zen, batez ere kontserbagintza urtaroan oso irregularra zela eta 5-9 hilabete-tetako enplegua baino ez zuela ematen.

– *Itsasgizonen errolda* (“matrikula”) egitea, arrantza baimenak –tokitik Filipinetaraino– lortzeko behar ziren jokaera onaren zertifikatuak ematea, eta Armadara bidaltzen zen soldatu kopurua biltzea. Azken hau gaitzik arinena zen, Foruek babestutako soldaduzkarik eza defendatzen zen. Kopurua, aldiz, Foru Aldundiak gobernu zentralarekin negoziatzeko erabiltzen zuten, egia esanda Aro Moderno osoan zehar egin zuten bezala.

Kofradiak tokiko kapitalistek ez ezik, Estatuaren gobernutik, gobernadore zibilen bidez, erasotuak izan ziren ere. Adibiderik adierazkorrena, 1847an Rafael de Navascues-ek nafartar foru-aurkakoa idatzi zuen:

“Los pescadores asociados no tienen, según he visto, la natural libertad para salir o no salir a la mar cuando les place, ni para volverse al puerto cuando convenga a sus intereses. Un mayordomo que ejerce sobre ellos un mando que pasaria por despotico en Constantinopla, ordena arbitrariamente la salida y retirada al puerto, sin mas regla que su capricho, determina la unica clase de pesqueria que ha de hacerse, impide la venta del pescado hasta hacerlo en comun por la noche, no reparte mutuos a los pescadores el importe de la venta más que un día a la semana, y siendo como es al mismo tiempo arrendador o partehabiente en las sisas del vino, lleva a los pescadores a su bodega, estos beben por lo mismo que no lo pagan en el acto mas de lo que puede sufragar su bolsillo, malgasta el tiempo que los intereses de su familia y la compañía de su mujer e hijos reclaman, y al hacerse las cuentas o ajustes particulares por el mayordomo, resulta que los pescadores salen alcanzados o reciben un miserable estipendio por sus sudores de toda una semana. En suma, la inmoralidad y el vicio son en la práctica, las consecuencias de la cofradía de mareantes, tal cual hoy se halla establecida”⁶.

Argudioa hitzez-hitz sinestea –hau da, kofradiak atzerakoiak eta despotikoak izatea– oker dagoela izkribuek adierazten digute. Bestalde, justifikazio moralen bat sartzea garaiko publizisten ohizko bidea zen, holako argudioak agintariek ondo onartzen zituztelako.

3. BESTE ERAGINAK

Kapitalismoaren atalek sortutako beste aldaketak askoz motelagoak izan ziren, epe luzekoak; eta ez beti, ala ez soilik, sektorearen agintarien eraginetatik. Nabarmenenak aipatuko ditugu. Demografia aldetik, aukeratu dugun aroan aldaketarik ia ez zen egon, eskaera erantzuteko tokiko langilegoa aski

6. Ofizioa 1847koa da; ik. ZABALA OTZAMIZ-TREMOYA, Angel: *Historia de Bermeo*, Bermeo: Imprenta Víctor de Gaubeca, 1928-1931, II, 301-302.

zelako. Beraz, tokiko komunitateak delako “tradizionaltasuna” gordegiten zuten, orain aztertzeoak ez diren faktoreek lagunduta ere; zein neurritan, eta nolako aldaketa eta iraunkortasunekin, hor dago kokka.

3.1. Politika aldetik, kontserba industriaririk nagusienek liberalismoaren alde jokatu zuten, guztiek ez esateko, kronologia goiztiarretan edota kasu pertsonal batzutan frogatzea ezinezkoa delako. Honen ondorioz, Karlistadak lehertu zirenean Bizkaiko arrantza portuetan gatazka gorria izan zen, barru zapalkuntza gogorra sortaraziz. Problema Bigarreanean (1872/3tik 1876arte) sakonagoa zen, ordukotz tokiko liberalek esperientzia boterean, harreman finkatuak eta kanpoko laguntzak, dirudienez, edukitzeagatik. Karlismoa udalak kontrolatzeko arrantzaleen egoera latzaz baliatu zen eta biztanle kopuru aldetik gehiengoaren onarpena edo, bederen, tolerantzia lortu zuen. Dena den, arrantzaleei ez zien agintean parte hartzea baimendu eta agintzaritza burgesientzat gordegin zuen, haren helburuetariko bat klase borroka deusestatzea ala bederen estaltzea zelako.

3.2. Ohitura eta pentsaera aldetik gertatutakoa aztertzea oso zaila da, izkribuetan ia daturik ez egotearen: dakigunez, mentalitate aldaketarik sakonena burgesiarena zen, eta arlo honetan arrantzaleekiko urruntasuna gero eta handiagoa bihurtu zuen, arrantzaleek beren esperientzak eta sentipenak idatziz kontatzeko beharrezkotasuna ez zutenean.

Dakigunez, agintari burgesek komunitatearen barruko loturen ahuldura bultzatu egin zuten. Batzutan, ia konturatzeke, bere burua ekintza publiko orokorretatik –jende xehearekin ez nahasteko– urruntzen zutenean, klase aurreritziengatik; besteetan, nahiz, individualismoa herritarrengan nagusituko balitz, menperaketa askoz errezagoa izango litzaiekelako (gogoratu aipaturiko Bermeoko protesta). Ordezkaritza erritu publikoak folklorizatuak izan ziren; adibidez, aurreku nagusiak zaharren ikuskizunak bezala aipatzen dira, ez guztiak partaide izateko, nahiz aberatsak nahiz xumeak, ohorezko berdintasuna eta gizarte-gorputzaren haien funtzioa adierazteko: burua zirenena, zuzendu; besteena, eskuek bezala lan egin; guztiena, bizitza etorkizunerako finkatu. Erderaz “clamor” (“deialdia”) deitzen ziren otoitzak eta kanpaia jotzeak itsasotan hildakoen arimak elkarbizitza taldeari izpiritualki itzultzen zizkien, euskaldunentzat (eta Mendebalde Europako arrantzale askorentzat) herriak irauteko joanak biziak bezain eraginkorrak zirelako. Hirurogeita hamarren hamarkadatik desagertu ziren, ia seguraski apaizek ez baimentzeagatik, bakarkako erlijiosotasun burges berriaren aldekoak zirenez holan Elizak boteretsuen alboan irauteko, gizarte lasaitasuna gizakien arteko ezberdintasun sakonak aldatu barik laguntzearren.

Etnografo eta etnologoen ikerketen arabera, aldiz, jokabide batzu (asko ote?) mantendu egin ziren, gaurregun arte eta guzti; holan itsasontzien ikurrak, ezizen adierazkorrek edo natur indar kaltegarriak ekiditzeko tabuak. Honetaz, zailena egitear dago: pentsamolde bereziaren orokortasunean zein pisu espezifikoak zeukaten eta daukaten.

3.3. Kultura “ofiziala”ren eragina zehiarka ikusten da; aztertzea askoz zailagoa da. Berrogeita hamarren hamarkadatik aurrera alfabetizazioa hedatu egin zen, batez ere 1857ko Moyano ministroaren Hezkuntza Legearen aurrean Foru Aldundia bere arauak jarri ondoren lehen hezkuntza udalen eskuetan jarraituko zuela bermatzeko (aztertutako denboretan Bizkaia osoan bigarren hezkuntzarako Instituto bat baino ez zegoen). Irakaskuntza, hezkuntza gisa ulertzen zen, hau da, jakintzaz gain eta gainetik, ideologia sartzekoa; eta arrantza portuetako zinegotzien artean liberal fuerista kontserbadoreak aurkitzen dira, 1846/7tik 1864/67rarte karlista ohi moderatuekin elkarkidetzan zeuden gobernu zentralari “Foru erregimenaren” aldeko erantzun finkoak emateko. Irakaste horren ageriko helburuen artean, bake eta gizarte egiturak mantentzea nagusi zen, derrigorrezkoa zen erlijio katolikoaren laguntzaz.

Administrazioaren hedapenak eta konplexutasunak, merkatal eta lan arrazoi orokorrek eta burges bizimodua sartarazteko boteretsuen ahaleginek arrantzale familia askotan primuari irakurketa, bederen, ikastarazteko premia sortu zuten. Emandako eduki ideologikoak zein neurritan onartu ziren ezin daiteke finka. Ohizko komunitatearen harremanak ahuldu zuela esan daiteke, kanpoko ereduak sartzegatik. Aldi berean, herri kulturaren sendotasun eta iraunkortasuna frogatzen ditu, zaurituta izan arren gordegin zelako.

3.4. Kofradien aldetik, **Desamortizazioa** onuragarria zen. Haien ondarea ez zen ikutu, erakunde laikoak izateagatik; aldiz, klero erregeladunaren alde zeuzkaten zentsu zorrak (epe mugagabeko hipotekadunak), batez ere XVIIIgn mendeko hazkunde ekonomikoaz probetxatzeko asmoz azpiegiturak hobesteko kontratatuak, kitatzea erreztu ziren. Aldiz, herri lurren salmenta oskoldun-billetan aritzen zirenei kaltegarria zitzaieen, padurarik emankorrenak enpresari pribatuek nahi zituztelako, batez ere ostra hazkuntzarako. Azken prozesu hau burdingintzaren industrializazioak deusestatu bazuen ere, oso adierazkorra zaigu, eta orduko jendeengan eragindako erreakzioa asma daiteke.

3.5. Azkenez, baina ez azkena, **portuen erabilera** hauetariko handienetan eztabaidan jarri zen, arrantza eta merkataritzaren artean. Lekeition eta Bermeon interesen ezberdintasunak nabarietak ziren. Leheneraino merkataluntzi txikiak eta ertainak baina erlatiboki ugariak heltzen ziren, salgaiak Ekialdeko Bizkaia menditsuari arinago zerbitzeko; bigarrena, goizdanik arrantzan espezializatuta, tokiko burgesek inportaziorako eta haien eskabeteak bidaltzeko zabaldu eta prestatu nahi zuten. Ekintza hauetarako behar ziren azpiegiturak, txalupa eta untzi txikietan egiten zen arrantzarakoak baina handi eta garestiagoak ziren. Nahiz kofradiek, nahiz udalek dirua jarri izan, kostuaren kopuru astuna arrantzaleen kontura zegokeen, holako lanak ardo kontsumo edota arrain gaineko zergez ordaintzen zirelako.